



Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren V. Biltzarra

*Ziurgabetasunaren aurrean,
hezkuntza askatzailea*

Europa Biltzar Jauregia, Vitoria-Gasteiz
2021eko azaroaren 18, 19 eta 20an

Covid-19aren aurkako prebentziorako osasun-protokoloa

HEGOA INSTITUTUKO HEZKUNTZA TALDEA



Covid-19aren aurkako prebentziorako osasun-protokoloa

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren V. Biltzarra

Aurkibidea

1. Sarrera.....	3
2. Osasun-neurriak zaintzeaz arduratzen diren langileak.....	4
3. Covid-19rako talde arduraduna.....	4
4. Neurri kolektiboak.....	5
5. Neurri indibidualak.....	6
6. Mugikortasunerako plana.....	8
Akreditazioa eta materialak ematea.....	8
7. Higienea, aireztatpena eta garbitasuna.....	9



Covid-19aren aurkako prebentziorako osasun-protokoloa

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren V. Biltzarra

1. Sarrera

Covid-19aren aurkako prebentziorako osasun-protokoloa honetan, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren V. Biltzarrean parte hartuko dutenen osasuna babesteko zer neurri hartuko diren zehazten da.

Protokoloa egiteko unean Euskadin Covid-19aren aurka indarrean zegoen prebentzio-araudia kontuan hartuta egin da; beraz, aldaketak izan ditzake, V. Biltzarra egiten den egunetarako erakunde eskudunek ezartzen dituzten osasun-neurrien arabera.

Ekitaldia presentzialki egingo da azaroaren 18an, 19an eta 20an Gasteizko (Araba) Europa Biltzar Jauregian. Bertan, hainbat langile arduratuko dira osasun-neurriak betetzen direla zaintzeaz, eta *Covid-19rako talde arduraduna* (E-19) ere han izango da, kasu positiborik egonez gero erantzuteko eta prebentziorako jarduketa-protokoloa abian jar dezan.

Gainera, osasun-segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurri kolektibo eta indibidualak jarriko dira abian, eta mugikortasun-plan bat aktibatuko da jende-pilaketarik ez gertatzeko eta leku guztietan gomendatutako distantzia errespetatzeko.

Adierazi behar da protokolo honek neurri kolektiboak eta indibidualak bereizi dituela (jardute kolektiboak edo indibidualak, kasuan kasu, duen inplikazio-mailaren arabera), baina elkarrekin lotuta daudela guztiak. Beraz, V. Biltzarreko partaide garen guzti-guztiok lagundu behar dugu espazio segurua sortzen, bertan elkarrekin egoteko eta sortzeko aukera izan dezagun.

Protokoloaren hasieran, osasun-neurriak zaintzeaz arduratzen diren langileen eta *Covid-19rako talde arduradunaren* (E-19) eginkizunei buruzko informazioa ematen da. Ondoren, neurri kolektiboen eta indibidualen zerrenda xehatua egiten da, eta azkenik, pertsonen mugikortasunerako plana aurkezten da. Bukatzeko, labor-labor jakinarazten da zer-nolako higiene-, aireztapen- eta garbiketa-neurriak dituzten Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren V. Biltzarrak eta Europa Biltzar Jauregiak berak.



2. Osasun-neurriak zaintzeaz arduratzen diren langileak

Ekitaldiak irauten duen bitartean, Hegoa Institutuko pertsona talde batek gainbegiratuko du osasun-neurriak betetzen diren ala ez. Langile horien eginkizun nagusiak honako hauek izango dira:

- Parte-hartzaileei orientazioa eta informazioa ematea osasun-neurriak betetzeari buruz
- Pertsonen mugikortasuna erraztea
- Gomendatutako distantziak errespetarazten saiatzea
- Sarrerak eta irteerak kontrolatzea, jende-pilaketarik ez gertatzeko
- Maskararen erabilera egokia egiten ote den gainbegiratzea
- Osasun-neurriak betetzearekin lotutako gorabeheren berri ematea
- Covid-19aren aurkako prebentzio-protokolo honekin lotutako edozein premia egonez gero, laguntzea eta erantzutea

Pertsona horiek agiri beltzak eramango dituzte, erraz identifikatu ahal izan daitezzen.

3. Covid-19rako talde arduraduna

Norbaitek positibo eman duela jakinarazten bada, *Covid-19rako talde arduraduna* (aurrerantzean, E-19) arduratuko da ekitaldiko osasun-protokoloa abian jartzeaz.

Norbaitek sintomaren bat badu, edo Covid-19an positibo eman duen pertsona batengandik hurbil egoteagatik berrogeialdia egin behar badu, edota positibo eman badu, **ez du ekitaldira agertu behar**. Ekitaldian parte hartu ondoren norbaitek sintomaren bat badu, edo Covid-19an positibo eman duen pertsona batengandik hurbil egon dela jakinarazten badiote, edota positibo eman badu, **E-19rekin jarri behar du harremanetan berehala**.

Talde horrek dagokion pertsonari lagunduko dio eta nola jardun behar duen jakinaraziko dio; horrez gain, beharrezkoak diren neurriak jarriko ditu ekitaldian kutsadurak prebenitzeko, betiere dagozkion osasun-zerbitzu publikoen laguntzarekin.

E-19rekin harremanetan jartzeko telefonia www.congresoed.org webgunean argitaratuta egongo da.



4. Neurri kolektiboak

V. Biltzarrak irauten duen bitartean, neurri kolektibo batzuk jarriko dira abian pertsona guztien osasuna babesteko. Neurri horiek behar bezala betetzen direla ziurtatzeko, arestian adierazi den bezala, ekitaldian langile batzuk egongo dira –argiri espezifikoekin identifikatuta–, parte-hartzaileei Covid-19aren aurkako prebentziorako osasun-neurri guztiak betetzen laguntzen.

Ondoren, neurri kolektiboak zehazten dira:

a. Burbuila-taldeak sortzea, sorkuntza kolektiboko taldeen arabera

Parte-hartzaileak zer lldo Estrategikotara (IE) atxiki diren kontuan hartuta, talde bakoitza kolore batez bereiziko da:

- IE1. Gorputzak eta lurraldeak: **berdea**.
- IE2. Komunitate-eraikuntza: **horia**.
- IE3. Aurrea hartzen duen ikaskuntza: **urdina**.
- IE4. Sareak, aliantzak eta *bestelako* komunikazioak: **morea**.

Kolore bakoitzak burbuila bat adierazten du, eta, beraz, baita biltzarrak irauten duen bitartean bakoitzak kide izango duen pertsona-multzo nagusia ere.

Entzunaretoetako espazioa ere aipatutako kolore horien arabera antolatuta egongo da, burbuilen banaketa errazteko.

Bestalde, parte-hartzaile bakoitzak Sorkuntza Kolektiboko Talde bat izango du esleituta, eta talde horretan egon beharko du aurreikusitako denboran.

b. Sartu eta irten, multzoka eta mailaz maila

Sartzeak eta irteteak –bereziki entzunaretoetan, horietan egongo baita jende gehien– mailaz maila egingo dira; atetik hurbilen dauden eserleku-ilaretakoak hasiko dira eta urrunen daudenak izango dira azkenak. Sartzeko eta ateratzeko atek desberdinak izango dira, eta –ahal den neurrian– kontrako lekuetan egongo dira, zirkulazio-noranzko bakarra egon dadin.

Garrantzitsua da behar-beharrezkoa denean baino ez ibiltzea biltzarraren gunetan sartzen edo irteten. Halaber, sartzeko ordutegiak errespetatu beharko dira, jende-pilaketarik gerta ez dadin.

c. Jende kopurua errespetatzea

V. Biltzarra egiten den unean Eusko Jaurlaritzak entzunareto eta aretoetarako onartzen duen jende-kopurua sartu ahal izango da haietan. Arazorik ez izateko, erabilgarri dauden entzunareto



eta erabilera anitzeko aretoen artetik kopuru handiena har dezaketenak eta leku handiena dutenak erabiltzeari eman diote lehentasuna V. Biltzarraren antolatzaileek. Gainera, badaezpada, areto osagarriak prestatu dira, ez dadin gerta erabilgarri dauden lekuen tamainagatik –eta ekitaldia egiten den unean indarrean egongo diren mugengatik– espero den jende guztia biltzerik ez izatea.

Ekitaldiak irauten duen bitartean, zenbat pertsona bertaratu den zenbatu eta kontrolatuko da, baimendutako pertsona-kopurua ez dadin inoiz gainditu.

a. Premia espezifikoak

V. Biltzarrerako sarbidea mugatuta dago, izena eman duten pertsonak soilik sartu ahal izango baitira; ezin izango da gonbidatu izena eman ez duen pertsonarik, ezta laguntzailerik ekarri ere. Adingabeak (0-6 urte) dituztenek haurtzaindegi-zerbitzua izango dute, nahi izanez gero. Zerbitzu hori gutxienez 6 erabiltzailek eskatzen badute jarriko da abian. Zerbitzu hori Hegoako Hezkuntza Taldeari eskatu beharko zaio (educación@hegoa.info).

Beste premia espezifiko batzuk dituztenek ere Hezkuntza Taldearekin harremanetan jarri beharko dute, eta premiaren berri eman.

Premia espezifiko guztiak urriaren 24a baino lehen jakinarazi beharko dira, ahal bada.

5. Neurri indibidualak

Ondoren, V. Biltzarrean parte hartu duten pertsona guztien osasuna zaintzen laguntzeko parte-hartzaile bakoitzak zer neurri indibidual bete behar dituen zerrendatu eta zehaztuko da.

a. Maskara derrigorrez erabili beharra

Derrigorrezkoa da Europa Biltzar Jauregiaren barruan maskara erabiltzea. Edateko edo jateko soilik kendu ahal izango da, horretarako prestatutako lekuetan. Gainera, komeni da kanpoan ere maskara erabiltzea, bereziki jauregiaren inguruan.

b. Sintomarik izanez gero, ekitaldira ez bertaratzea

Pertsona batek sintomaren bat badu, Covid-19an positibo eman duen pertsona batengandik hurbil egon bada, edo positibo eman badu, **ez du ekitaldira bertaratu behar**.



Ekitaldira bertaratu ondoren norbaitek sintomaren bat badu, edo jakinarazi badiote biltzarra egin aurreko hiru egunetan nahiz biltzarra egin bitartean positibo eman duen norbaitengandik hurbil egon dela, edota positibo eman badu, **berehala jarri behar du harremanetan E-19rekin**. Talde horrek lagunduko dio, eta nola jardun behar duen jakinaraziko dio; horrez gain, ekitaldian kutsadurak prebenitzeko beharrezkoak diren neurriak jarriko ditu abian talde horrek. Protokolo honetako 2. puntuari zehazten dira talde horren eginkizunak.

c. Segurtasun-distantziak errespetatu beharra

Nahitaezkoa da gutxienez 1,5 metroko segurtasun-distantzia errespetatzea, ahal bada.

d. Gel hidroalkoholkoa erabili beharra

Eremu bakoitzean, higienizatzeko guneak egongo dira eskuragarri, ondo ikusteko moduko eta erraz iristeko moduko lekuetan. Gune horietan gel hidroalkoholikoak, maskarak, eta gainazal eta objektuak desinfektatzeko produktuak egongo dira.

e. Janaria eta edaria

Jateko eta edateko prestatutako lekuetan soilik jan eta edan ahal izango da.

Jangela 6-8 pertsonako mahaitan banatuta egongo da (indarreko arauen arabera). Mahai bakoitzean zerrenda bat jarriko da, mahaia erabiltzen dutenek beren izen-abizenak erregistratzeko. E-19k zerrenda horiek jasoko ditu, hurbileko kontaktuen kontrola egin ahal izateko.

f. Komunen erabilera

Komunak erabiltzeko, haietan sar daitekeen pertsona-kopuruaren muga errespetatu beharko da. Hurbilen dauden komunak erabiltzea gomendatzen da; mugikortasun-mapan seinaleztatuta daude. Plano hori azaroaren 1etik aurrera egongo da eskuragarri biltzarraren webgunean (www.congresoed.org), "Informazio baliagarria / Covid-19aren aurkako prebentzio-neurriak" atalean.

g. Materialen erabilera indibiduala

Material suntsikorraren erabilera ahalik eta gehien murrizteko ahalegina egingo da; beraz, ahal denean, formatu digitalei emango zaie lehentasuna.

Parte-hartzaileek erabilitako objektuak desinfektatu egingo dira, osasun-neurriak betetzen direla ziurtatzeaz arduratzen diren langileen jarraibideak betez.



Neurri kolektiboak bezala, neurri indibidualak ere formatu atsegineko infografia batean bilduko dira. Infografia hori azaroaren 1etik aurrera egongo da erabilgarri biltzarraren webgunean (www.congresoed.org), “Informazio baliagarria / Covid-19aren aurkako prebentzio-neurriak” atalean.

6. Mugikortasunerako plana

Osasun-neurriak zaintzeaz arduratzen diren langileek, beste eginkizun batzuen artean, pertsonen mugikortasuna gainbegiratu dute V. Biltzarra egiten den bitartean.

Esparruaren barruan eta kanpoan jende-pilaketarik ez gertatzeko moduan antolatuko da pertsonen zirkulazioa ekitaldian. Era berean, guneak eta horien erabilera berriz diseinatuko da, gomendatutako distantzia ziurtatzeko beharrezkoa izanez gero.

Sartzeko eta irteteko ateetan, osasun-neurriak zaintzeaz arduratzen diren langileak kokatuko dira, eta parte-hartzaileen zalantzei edo premiei erantzungo diete. Halaber, kartelak eta seinaleak egongo dira zirkulazioaren noranzkoa eta beste leku batzuetan sartzeko bidea adierazteko.

Ibilbideak ezarriko dira, parte-hartzaileen zirkulazioa gidatzeko eta eremu jakin batzuetan jende-pilaketarik ez gertatzeko.

Entzunaretoetan –espazioak horretarako aukera ematen badu– sartzeko eta irteteko ate desberdinak erabiliko dira, zirkulazio-noranzko bakarra egon dadin. Halaber, bertaratuak koloreen bidez bereizitako burbuilen arabera banatuta egongo direnez, errazagoa izango da haiek entzunaretoan barrena modu ekitatiboan banatzea.

Plan hau mugikortasunerako mapan laburbilduta dago. Mapa biltzarraren webgunean (www.congresoed.org) argitaratuko da, “Informazio baliagarria / Covid-19aren aurkako prebentzio-neurriak” atalean, azaroaren 1etik aurrera.

Akreditazioa eta materialak ematea

Lehenengo egunean (2021eko azaroaren 18a), akreditatzeko eta materialak emateko lekua 15:00etatik aurrera egongo da irekita. Kontuan hartuta biltzarra 16:00etan hasiko dela, parte-hartzaileei eskatzen zaie lehenago bertaratu daitezela, eta errespetu ditzatela –ahal bada– ordena alfabetikoaren arabera banatutako sarrera-orduak.

- Lehen abizenaren lehen letra **A-K** duten parte-hartzaileak: 15:00-15:30
- Lehen abizenaren lehen letra **L-Z** duten parte-hartzaileak: 15:30-16:50



Ekitaldi osoan informazioa, akreditazioak eta materialak emateko mahai bat egongo da eskuragarri.

7. Higienea, aireztapena eta garbitasuna

Ekitaldia egingo den leku guztietan higienizatzeko guneak ezarriko dira. Gune horietan gel hidroalkoholikoak, maskarak, eta gainazal eta objektuak garbitzeko beste material batzuk egongo dira. Gune horiek ondo ikusteko moduko eta erraz iristeko moduko lekuetan egongo dira.

Biltzarraren bigarren eta hirugarren egunetan emango diren janari-zerbitzuetan indartu egingo dira higie- eta osasun-neurriak. Beste neurri batzuen artetik, honako hauek nabarmenduko ditugu:

- Jateko eta edateko eremu bat egongo da, horretarako bereziki prestatua, eta debekatuta egongo da egokitutako leku horietatik kanpo jatea eta edatea.
- Bazkaltzeko eremuan gehienez ere 6 pertsona bilduko dira mahai batean, eta mahaien artean 1,5 metroko tartea utziko da.
- Janaria unitate indibidualetan emango da.

Adierazi behar da Europa Biltzar Jauregian aireztapen-sistema egokiak daudela, bai eta higie- eta garbiketa-zerbitzua ere, eremuak erabiltzeko modu egokian uzteko. Gainera, *Covid-19aren aurkako kontingentzia-plana eta prebentzio-neurriak* ditu Jauregiak. Bertako prebentzio-neurriei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitez honekin harremanetan: *Vitoria-Gasteiz Turismo & Convention Bureau* (Tel.: +34 945 16 15 20 / E-maila: congestur@vitoria-gasteiz.org).

Azken oharra

Jakin badakigu neurri hauek mugatu egingo dutela, nolabait, biltzarrean izango dugun esperientzia, baina uste dugu beharrezkoa dela topagune presentzialeari berriro ekitea, bizi dugun uneari buruzko gogoeta egiteko.

Ziur gaude parte-hartzaile guztiek ahalegina egingo dutela protokolo honetan ezarritako neurriak errespetatzeko, eta eskerrak eman nahi dizkiegu horregatik. Guztion laguntzari esker, eremu zaindu eta seguru batean jardun ahal izango dugu.